



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko Idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Gobernu batzarrak, bi mila eta hogeita biko apirilaren bostean, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du :

**4. BEHIN-BETIKO ONARPENA EMATEA “24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA”
AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO PROIEKTUARI.**

Esparrua:	24. lurre
Azpiesparrua:	24.1 Iurramendi Pasealekua
Eskatzailea:	Construcciones Sukia Eraikuntzak SA (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Sarrera datak: (erregistro elektronikoa)	2021/06/18 (2021-6126/6127/6128 zk.) 2021/11/19 (posta elektronikoz) Dok. osagarria – planoak 2022/03/04 (2022-2926/2930/2931/2934/2936 zk.) Testu bateratua 2022/03/25 (2022-3868 zk.) Dok. osagarria 2022/03/30 (2022-4111 zk.) Dok. osagarria
Espedientea:	2021H1220001

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Txosten teknikoa (JO21_042)	2021/11/29	Kontrakoa
Txosten teknikoa (JO21_048)	2021/11/30	Aldekoa
Txosten juridikoa (MAU21_019.1)	2021/12/09	Aldekoa
Akordio proposamena (MAU21_019.2)	2021/12/09	Aldekoa
Idazkariaren ziurtagiria Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaz	2021/12/15	Aldekoa
Jakinazpenak interesdunei eta eragindako lursailen jabeei	2021/12/23 - 2022/02/08	Aldekoa
Txosten sektorialen eskaerak (GFA Bide Azpiegituretako departamentua; Uraren Euskal Agentzia; EJ Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza)	2022/01/03	
- Iragarkia GAO	2022/01/14	
- Iragarkia udaletxeko iragarki taulan / web gunean	2022/01/14 - 2022/02/14	



- Diario Vasco	2022/01/17	
- Tolosaldeko Atarian	2022/01/18	
- Berria egunkarian	2022/01/18	
Kultura Ondaren Zuzendaritzaren erantzuna	2022/01/26	Aldekoa
Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena	2022/01/28	Aldekoa
Informazio publikoari buruzko Idazkariaren ziurtagiria	2022/02/17	
Ur Agentziaren komunikazioa	2022/02/18	Ez da beharrezkoa Administrazio Hidraulikoak obrak baimentzeko eskaera izapidetzea
Testu bateratuaren aurkezpena	2022/03/04	Interesduna: Tolosasukia SL (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Dok. Osagarriaren aurkezpena	2022/03/25	Interesduna: Tolosasukia SL (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Dok. Osagarriaren aurkezpena	2022/03/30	Interesduna: Tolosasukia SL (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Txosten teknikoa (AE22010)	2022/03/31	Aldekoa, oharrekin
Txosten juridikoa (MAU220024.1)	2022/03/31	Aldekoa

2022eko martxoaren 31ko udal teknikariaren txosten teknikoak (AE22010), laburbilduz, honakoa dio:

“(…)

TXOSTENA

Txosten honen helburua da «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizazio-proiektua aztertzea. Horretarako, aurkeztutako azken agirian hasierako onarpenean ezarritako baldintzak jaso diren aztertuko da. Horretaz gain, proiektuaren sustatzaile eta proiektugileekin 2022ko otsailaren 22an izandako bileran adierazitako zalantzak landu diren ere aztertuko da.

Baldintzen laburpena:

1-Urbanizatzeko ordenantzei eta azpiegiturei buruzkoa:

Ur-hornidura
Ur beltzen sarea
Euri uren sarea
Telekomunikazio sarea
Argiteria publikoa
Lorezaintza
Gasa

2-Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.



3-Txosten Sektorialak

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzakoa:

4-Sustatzaile eta Udalan arteko koordinazio bilera

Hasteko, haserako onarpenean ezarritako baldintzak jaso diren aztertzen da:

1-Urbanizatze ordenantzei eta azpiegiturei buruzkoa:

Ur-hornidura

2022ko martxoaren 24an, Igor Izurietak, Gipuzkoako Urak-eko arduradunak, adierazi du e-mail bitartez proiektuak egoki jaso duela —ur-hornidurari dagokionez—, eskatutakoa.

Ur beltzen sarea

2022-ko martxoaren 28ean, Igor Izurietak, Gipuzkoako Urak-eko arduradunak adierazi du email bitartez proiektuak jasotzeke duela Fn6 eta Ue12 kutxatileen arteko exekuzioa. Sare hori 20 metroko sarea da, eremuaren mugan kokatzen da eta Paper kalean du amaiera.

Sare hori gauzatzeko beharra ondorioztatu da egiteke zegoen bideo ikuskapenean. Izan ere, proiektuaren behin betiko onarpenak baldintza hori jasotzen zuen. Ikuskapena egin zen gaur egungo eraikinen sarea aztetzeko. Bertan, gaur egungo sarea mantendu edo berritu behar zen aztertu zen.

Aldaketa honek proiektuaren aurrekontua handitu du 3.305,15€-tan.

Ondoren, aurrekontuaren laburpenen konparazioa jartzen da:

BEHIN BEHINEKOA				BEHIN BETIKOA			
RESUMEN DE PRESUPUESTO				RESUMEN DE PRESUPUESTO			
CAPÍTULO	RESUMEN	IMPORTE	%	CAPÍTULO	RESUMEN	IMPORTE	%
11	DEMOLICIONES Y MOVIMIENTO DE TIERRAS	321.301,26	20,76	11	DEMOLICIONES Y MOVIMIENTO DE TIERRAS	321.301,26	20,76
12	PAVIMENTACIÓN.....	331.436,14	21,41	12	PAVIMENTACIÓN	331.436,14	21,41
13	INSTALACIONES.....	555.635,12	35,90	13	INSTALACIONES	557.930,52	35,99
1.3.1	ABASTECIMIENTO	73.834,67		1.3.1	ABASTECIMIENTO	73.834,67	
1.3.2	FECALAS	54.138,09		1.3.2	FECALAS	56.433,49	
1.3.3	PLUVIALES	79.392,67		1.3.3	PLUVIALES	79.392,67	
1.3.4	TELECOMUNICACIONES 1	25.365,47		1.3.4	TELECOMUNICACIONES 1	25.365,47	
1.3.5	TELECOMUNICACIONES 2	13.681,95		1.3.5	TELECOMUNICACIONES 2	13.681,95	
1.3.6	GAS	13.061,16		1.3.6	GAS	13.061,16	
1.3.7	ELECTRICIDAD	206.169,67		1.3.7	ELECTRICIDAD	206.169,67	
1.3.8	ALUMBRADO	89.991,44		1.3.8	ALUMBRADO	89.991,44	
14	SEÑALIZACIÓN.....	7.271,13	0,47	14	SEÑALIZACIÓN	7.271,13	0,47
15	MOBILIARIO URBANO.....	87.167,61	5,63	15	MOBILIARIO URBANO	87.167,61	5,63
16	REPOSICIONES	13.036,37	0,84	16	REPOSICIONES	13.036,37	0,84
17	ESTRUCTURAS	139.803,02	9,03	17	ESTRUCTURAS	139.803,02	9,03
18	ESTUDIO DE GESTIÓN DE RESIDUOS.....	53.713,13	3,47	18	ESTUDIO DE GESTIÓN DE RESIDUOS	53.713,13	3,47
19	ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD	38.512,43	2,49	19	ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD	38.512,43	2,49
PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN MATERIAL 1.547.876,21				PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN MATERIAL 1.550.171,61			
13,00 % Gastos generales 201.223,91				13,00 % Gastos generales 201.522,31			
6,00 % Beneficio industrial 92.872,57				6,00 % Gastos generales 93.010,30			
Suma..... 294.096,48				Suma 294.532,61			
PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN SIN IVA 1.841.972,69				PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN SIN IVA 1.844.704,22			
21% IVA..... 386.814,26				21% IVA 387.387,88			
PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN 2.228.786,95				PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN 2.232.092,11			
Asciende el presupuesto a la expresada cantidad de DOS MILLONES DOSCIENTOS VEINTIOCHO MIL SETECIENTOS OCHENTA Y SEIS EUROS con NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS				Asciende el presupuesto a la expresada cantidad de DOS MILLONES DOSCIENTOS TREINTA Y DOS MIL NOVENTA Y DOS EUROS, con once céntimos			

ESKUC36568e8-b391-4b9c-aa9d-ae9518c689cb



Euri uren sarea

Udalak behin betiko onarpenerako txosten teknikoan adieraziko eskaerak aintzakitatzat hartu ditu.

Proiektuak proposatuko sareak euri uren emaria bitan banatzen du. Horrek gaur egungo sarearen huste ahalmena hobetu du. Hala ere, proiektuaren eremutik kanpo euri uren sareak huste ahalmen eskasa dauka. Hori dela eta, Tolosako Udalak urteko plangintzan aurreikusi beharko luke eremuz kanpoko sarea berritzea.

Telekomunikazio sarea

Urbanizazio lanak gauzatzean aintzakitatzat hartu beharko da sarearen ibilbideak errepidearekiko perpendikular geratu behar duela.

Argiteria publikoa

2022ko martxoaren 16an, argiteriaren arduradunak aztertu zuen ea aurretik eskatutakoak behar bezala jaso ziren. Proiektua berraztertu ondoren, e-mail bitartez adierazi zituen obrak irauten duen bitartean aintzakitatzat hartu beharrekoak. Horrekin batera, jakinarazi zuen mendebaldean kokatutako errepidean —Laskorain ikastolarako bidean— argiteria egokitzeko asmoa duela Udalak. Etorkizun hurbilean egingo den egokitzapenak proiektuak jasotako argiteria egokitu beharra ekarri dezake.

Aldaketa horren mende ez egoteko, proiektuan kasurik okerrenea aurreikusi da. Hori dela eta, obran zehar udal egitasmoen eta urbanizazio lanen koordinazioa beharrezkoa izango da.

Lorezaintza

2022ko martxoaren 15ean, lorezaintzako arduradunak aztertu zuen ea aurretik eskatutakoak behar bezala jaso ziren. Proiektua berraztertu ondoren, e-mail bitartez adierazi zuen obrak dirauen bitartean zuhaixka espezieak kokatu eta zehaztu beharko direla — hori jaso du jada proiektuak aurrekontuan—.

Gasa

2022ko martxoaren 10ean, zerbitzuetako arduradun guztiei eskatu zitzaizen egiaztatu zezatela behar bezala jaso zituela proiektuak eurek eginiko eskaerak, horrela, akatsik izanez gero, zuzenketak proposatu zitzaizkien. Nortegas enpresako ordezkariak ez dute proposamenik egin.

2-Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.

o Materialak:

▪ 2022ko martxoaren 25ean, aurrekontu egokitua bidali dute; bertan, zuzendu dituzte zintarren eta edukiontzien ezaugarriak.

o Eraikuntza soluzioak

▪ Behin-behineko onarpena jaso zenez, proposatutako hormigoizko hormen tipologia, akabera testurizatu duena, zuzena da. Udalari kontsulta egingo zaio, exekutatu aurretik, aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.

3-Txosten sektorialak

Behin-behineko onarpenerako egindako txosten teknikoan adierazi zenez, txosten sektorial bakarra falta zen jasotzeko. Josu Vazquezek adierazitakoa kontuan hartuta, eskatutako txosten sektorial guztiak jaso dira.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzakoa:

2022ko urtarrilaren 26an, Josu Vazquez Conchak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzatik honako hau adierazi zuen:



«24. lurre eremuko Urbanizazio proiektua Tolosan» eskaerari buruz erabaki da ez dela informatuko. Zerbitzu teknikoen aburuz ez dago ingurumenarekiko kalte arrisku handirik, beraz ez dugu txostenik bidaliko.

4-Sustatzailearen eta Udalaren arteko koordinazio bilera

Ondoren, 2022ko otsailaren 22an izandako bileran adierazitako zalantzak landu diren aztertuko da:

Eremuaren mendebaldeko eraikuntzen aurrean N-Ietik Tolosara sartu-irteteko errepidea pasatzen da. Bilera hartan, Udaleko ordezkariok eskatu genuen eraikuntza prozeduran errepidearekiko eragina aztertu zezatela. Helburua da segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea eta herriko sarrera-irteera garrantzitsuenetarikoa une oro erabilgarri edukitzea.

Aurkeztutako agirietan ez dute eskaera hori behar bezala aztertu. Hala ere, egia da obraren antolaketa obrako kontratistaren esku geldituko dela. Hori dela eta, adjudikazio prozedura arautuko duen pleguan betebeharrak hori jarriz gero, Udalak bide eraginkorragoa izan dezake helburua betetzeko.

ONDORIOZTAPENA

Batetik, euri uren sareari dagokionez, Tolosako Udalak urteko plangintzan aurreikusi beharko luke eremuz kanpoko sarea berritzea. Izan ere, berritu beharreko sarea eremuz kanpo dago, eta proiektuak huste ahalmena hobetu arren, ez ditu eremuz kanpoko arazoak erabat konpontzen.

Bestetik, aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, eta aztertutako sareetan eragozpenik aurkitu ez denez, **aldeko txostena egiten da** Hiritartze proiektua behin betiko onartzeko.

Horretarako, aurrekontuaren behin betiko kopurua aintzakotzat hartu beharko da, sareamenduko egokitzapena kontuan hartuta.

PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN MATERIAL	1.550.171,61
13,00 % Gastos generales	201.522,31
6,00 % Gastos generales	93.010,30
Suma	294.532,61
PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN SIN IVA	1.844.704,22
21% IVA	387.387,88
PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN	2.232.092,11

Horrekin batera gogorarazten da proiektua esleitzean eta gauzatzean honako baldintza orokor hauek bete beharko dituztela:

Esleipenean

Eremuaren mendebaldeko eraikuntzen aurrean N-I-tik Tolosara sartu-irteteko errepidea pasatzen da. Aipatutako bileran Udaleko ordezkariak eskatu genuen eraikuntza prozeduran errepidearekiko eragina aztertu zezaten. Helburua segurtasuna bermatzeko neurriak hartu eta herriko sarrera-irteera garrantzitsuenetarikoa une-oro erabilgarri edukitzea.

Aurkeztutako agirietan ez dute eskaera hori behar bezala aztertu. Hala ere, egia da obraren antolaketa obrako kontratistaren esku geldituko dela. Hori dela eta, esleipen



prozedura arautuko duen pleguan betebeharrak hori jarritz gero, Udal helburua betetzeko bide eraginkorragoa izan dezakegu.

Obran zehar

Aintzakotzat hartu beharrekoak 3., 4., 5. eta 6. baldintzetan gogorazten dira.

LEHENA.- *Onartzea ``24.1 lurramendi pasealekua`` azpiesparruko eremua urbanizatzeko eraikitze proiektu bateratua, behin betiko aurrekontua aintzakotzat hartuta. (2.232.092,11€ BEZ-a barne)*

BIGARRENA.- *Adjudikazio prozedura arautuko duen pleguak, besteen artean, balorazio irizpide hau jasotzea: udalerrirako sarrera nagusienetakoa une oro erabilgarri izateko lanen antolaketa.*

HIRUGARRENA.- *Gogoraztea obran zehar proposatutako hormigoizko horma—akabera testurizatua duena— exekutatu aurretik, Udalari kontsultatu beharko zaiola aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.*

LAUGARRENA.- *Gogoraztea urbanizazio lanak gauzatzean telekomunikazio sarearen ibilbideak errepidearekiko perpendikular geratu behar duela.*

BOSGARRENA.- *Gogoraztea obrak irauten duen bitartean lorezaintzako arduradunarekin zuhaixken espeziaren exekuzioa koordinatu behar dela.*

SEIGARRENA.- *Gogoraztea obrak dirauen bitartean udal argiteriaren plangintzan aurreikusitako lanekin koordinatu beharko dutela”.*

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147, 194 eta 196. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua.

II. Urbanizazio-proiektua behin betiko onartzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau da:

- A) Jendaurreko informazioa amaitutakoan eta alegazioak ikusita, alkateak (Tolosako Udalaren kasuan, Tokiko Gobernu Batzarrak) behin betiko onartzeko du urbanizazio-proiektua, hasierako onespeneren ondorengo jendaurreko informazioaren izapidea amaitzen denetik bi hilabeteko epean. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, ulertuko da behin betiko onarpena administrazio-isiltasunez eman dela.
- B) Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

III. Alkatetzari dagokio urbanizazio-proiektuaren behin betiko onespenera ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion



2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio behin betiko onespena ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

“24.1 lurremendi Pasealekua” azpiesparruko urbanizazio-proiektua onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetza jarraitu du, beraz, behin betiko onespena eman daiteke eta hori Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan beharko da adierazitako udal teknikariak egindako txostenean jasotakoa.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA 24 lurre esparruko “24.1 lurremendi Pasealekua” azpiesparruko urbanizazio-proiektuaren testu bateratuari (2022ko martxoaren 4an aurkeztutakoa), eta bera osatzen duten dokumentu osagarriei (2022ko martxoaren 25ean eta 30ean aurkeztutakoak), behin betiko aurrekontua aintzakotzat hartuta (2.232.092,11€ BEZ-a barne).

BIGARRENA.- Kontuan hartzea udal teknikariak idatzitako 2022ko martxoaren 31ko txostenean ezarritakoa:

- Adjudikazio prozedura arautuko duen pleguak, besteen artean, balorazio irizpide hau jasotzea: udalerrirako sarrera nagusienetakoa une oro erabilgarri izateko lanen antolaketa.
- Gogoraraztea obran zehar proposatutako hormigoizko horma —akabera testurizatua duena— exekutatu aurretik, Udalari kontsultatu beharko zaiola aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.
- Gogoraraztea urbanizazio lanak gauzatzean telekomunikazio sarearen ibilbideak errepidearekiko perpendikular geratu behar duela.
- Gogoraraztea obrak irauten duen bitartean lorezaintzako arduradunarekin zuhaixken espezien exekuzioa koordinatu behar dela.
- Gogoraraztea obrak dirauen bitartean udal argiteriaren plangintzan aurreikusitako lanekin koordinatu beharko dutela.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0008

HIRUGARRENA.- Behin betiko onespén erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Halaber, Udalaren iragarki taulan zein egoitza elektronikoan ere eskuragarri jartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei zein eragindako lursailen jabeei zuzenean jakinaraztea.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespénarekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0008-24.1 lurramendi pasealekua/24.1 lurramendi pasealekua ()